Bestelako Xedapenak

LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA

2748

ERABAKIA, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak 2011ko apirilaren 20ko bileran hartutakoa; honen bidez, aldatu egiten da kotizaziopeko prestaziorik jasotzen ez duten eta/edo diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten Euskal Autonomia Erkidegoko langabeak kontratatzea bultzatzeko laguntzei buruz 2011ko martxoaren 3ko bileran onartutako Erabakiaren bidez onartutako deialdia.

2011ko martxoaren 3an egindako bileran onartutako Erabakiaren bidez, kotizaziopeko prestaziorik jasotzen ez duten eta/edo diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten Euskal Autonomia Erkidegoko langabeak kontratatzeko laguntzei buruzko deialdia onartu zuen Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak.

Onartutako deialdi haren testuan, diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoak ezarri ziren, moduluen arabera, kontratatutako langileei dagokien Gizarte Segurantzako kotizazio-taldea aintzat hartuta.

Diru-laguntzetarako aurreikusitako gehieneko zenbatekoa kalkulatzeko, kontuan hartu zen kontratazioen soldata-kostu guztiak ez zuela Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren aurrekontuen kargurakoa izan behar, baizik eta entitate onuradunek ere hartu behar zutela horren zati bat beren gain.

EAEko erakundeek gai honi buruzko hausnarketa egin dute, eta ondorioztatu dute ezarritako diru-laguntzen zenbatekoak beren gain hartzeak, gaur egun, krisialdi ekonomikoaren eragin latza pairatzen ari direnez, beren gain hartu ezin duten karga ekonomikoa ekarriko diela.

Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak ezin die entzungor egin hausnarketa horiei; izan ere, entitate horiek dira laguntza-programa honek xede dituen pertsonak kontratatzeko planak egiteko sustatzaile nagusiak, eta deialdiak emaitza ona izatea, bazterkerian edo bazterkeria-arriskuan dauden pertsonak lanarloan aktibatzeko eta laneratzeko neurria den heinean, erakunde horien laguntzaren baitan dago neurri handi batean.

Horren ondorioz, Euskal Enplegu Zerbitzuak beharrezkotzat jo du kotizaziopeko prestaziorik jasotzen ez duten eta/edo diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten langabeak kontratatzea bultzatzeko laguntzei buruzko 6. artikuluan ezarritako diru-laguntzen gehieneko zenbatekoak aldatzea, zenbate-

Otras Disposiciones

LANBIDE-SERVICIO VASCO DE EMPLEO

2748

ACUERDO del Consejo de Administración de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo por el que se modifica la convocatoria de ayudas de apoyo a la contratación de personas desempleadas no perceptoras de prestación contributiva y/o perceptoras de la renta de garantía de ingresos de la Comunidad Autónoma Vasca, aprobada mediante Acuerdo adoptado en su sesión de fecha 3 de marzo de 2011.

Mediante Acuerdo adoptado en su sesión de 3 de marzo de 2011, el Consejo de Administración de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo aprobó la convocatoria de ayudas a la contratación de personas desempleadas no perceptoras de prestación contributiva y/o perceptoras de la renta de garantía de ingresos de la Comunidad Autónoma Vasca.

En el texto de la convocatoria aprobada se establecen las cuantías máximas de subvención por módulos, en función del grupo de cotización a la Seguridad Social de las personas contratadas.

El importe de las cuantías máximas de subvención previstas fue calculado de manera que la financiación del coste salarial de las contrataciones no recayese en su totalidad sobre los presupuestos de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, sino que fuese en parte compartido por las entidades beneficiarias.

La reflexión que sobre este tema han llevado a cabo las entidades locales de la CAPV, les ha llevado a concluir que los importes de subvención establecidos suponen la traslación a las arcas municipales de un peso económico que les resulta imposible de asumir en estos momentos, en los que la crisis económica les afecta especialmente.

Estas reflexiones no pueden ser obviadas por Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, puesto que estas entidades son unas de las principales promotoras de la realización de planes de contratación de las personas a quienes va dirigida este programa de ayudas, y el éxito de la convocatoria, en cuanto supone de medida encaminada a la activación e integración laboral de personas que se encuentran en situación de exclusión o riesgo de exclusión, depende en gran parte de la colaboración de las mismas.

En consecuencia, el Servicio Vasco de Empleo ha considerado necesario modificar, para incrementarlas, las cuantías de subvención establecidas en el artículo 6 de la convocatoria de ayudas de apoyo a la contratación de personas desempleadas no perceptoras de prestación contributiva y/o perceptoras de la renta de

ko horiek igotzeko. Era berean, kontratuei dagokien soldata-kostu eta Gizarte Segurantzako kostu osoa ordaintzeko aukera ezarri du, erakunde onuradunek hartarako premia edo kostu hori ezin estali izana egiaztatzen duten kasuetarako.

Hori guztia kontuan izanik, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak honako erabaki hau hartu du, 2011ko apirilaren 20ko bileran, bertaratuek aho batez onartuta:

ERABAKIA

Lehenengoa.– Aldatzea kotizaziopeko prestaziorik jasotzen ez duten eta/edo diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten Euskal Autonomia Erkidegoko langabeak kontratatzea bultzatzeko laguntzen deialdia, 2011ko martxoaren 3ko bileran onartua, ondoko terminoetan:

Bat.– 6. artikuluari beste idazketa bat ematen zaizkio. Hain zuzen ere, honela geratuko da artikulu hori:

«1. Itzuli beharrik gabeko diru-laguntza bidez, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak deialdi honen babespean egiten diren kontratu guztiak finantzatuko ditu, honako kopuru hauekin, Gizarte Segurantzako erregimen orokorreko kotizazio-taldearen arabera:

– 1.800 euro hilean, 6.–10. Kotizazio-taldean kontratatutako langileentzat.

– 2.000 euro hilean, 2.–5. kotizazio-taldean kontratatutako langileentzat.

– 2.300 euro hilean, 1. kotizazio-taldean kontratatutako langileentzat.

Kopuru hori enpresa enplegatzaileak kontratu horiek direla-eta ordaindu beharreko soldaten eta Gizarte Segurantzako kuoten kostua ordaintzera bideratuko da.

Artikulu honen 4. paragrafoan bildutako aurreikuspenak salbuetsita, diru-laguntzaren zenbatekoak ezin izango du gainditu egindako kontratazio bakoitzaren benetako kostua, betiere adierazitako kontzeptuei dagokienez. Bestela, diru-laguntza benetako kostu horretaraino murriztuko da.

2.– Kontratuek 6 hilabete baino gehiago irauten badute, aurreneko sei hilabeteak baino ez dira diruz lagunduko, aurreko paragrafoan xedatutakoari jarraiki.

3.– Erakunde onuradunak diru-laguntzak estali gabeko soldatako eta Gizarte Segurantzako kostuak bere kargura finantzatzeko konpromisoa hartzen du. Aurreko gorabehera, erakunde onuradunek laguntza eskatzen duten kontratazioetarako lan-kostua estali beharra justifikatzen dute edo kostu horri aurre egiteko ezintasuna egiaztatzen badute, diru-laguntzaren garantía de ingresos, así como establecer la posibilidad de sufragar la totalidad del coste salarial y de Seguridad Social de los contratos, en aquellos supuestos en los que las entidades beneficiarias justifiquen la necesidad o acrediten la imposibilidad de su cobertura.

Por todo ello, el Consejo de Administración de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, en su sesión de 20 de abril de 2011, por unanimidad de los miembros asistentes, ha adoptado el siguiente

ACUERDO

Primero.– Modificar la convocatoria de ayudas de apoyo a la contratación de personas desempleadas no perceptoras de prestación contributiva y/o perceptoras de la renta de garantía de ingresos de la Comunidad Autónoma Vasca, aprobada en la sesión del Consejo de Administración de 3 de marzo de 2011, en los siguientes términos:

Uno.– Se da nueva redacción al artículo 6, que queda redactado como sigue:

«1.– Mediante subvención a fondo perdido, Lanbide-Servicio Vasco de Empleo financiará cada contrato celebrado al amparo de esta convocatoria, con las cantidades previstas a continuación, en función del grupo de cotización del Régimen General de la Seguridad Social:

– 1.800 euros/mes para el personal contratado en el grupo de cotización del 6 al 10.

– 2.000 euros/mes para personal contratado en el grupo de cotización del 2 al 5.

– 2.300 euros/mes para personal contratado en el grupo de cotización 1.

Esta cantidad se destinará a sufragar el coste de los salarios y las cuotas a la Seguridad Social correspondientes a la empresa empleadora por los citados contratos.

A salvo de las previsiones contempladas en el párrafo 4 del presente artículo, la cuantía de la subvención no podrá superar el coste efectivo de cada contratación realizada, por los conceptos mencionados. En caso contrario, la subvención se reducirá hasta el citado coste efectivo.

2.– Cuando la duración de los contratos sea superior a 6 meses, únicamente serán objeto de subvención, de conformidad con lo dispuesto en el párrafo anterior, los seis primeros meses de contratación.

3.– La entidad beneficiaria se compromete a asumir a su costa la financiación de los costes salariales y de Seguridad Social no cubiertos por la subvención. A pesar de lo anterior, cuando las entidades beneficiarias justifiquen la necesidad o acrediten la imposibilidad de cubrir el coste laboral de las contrataciones para las que solicitan ayuda, se podrá incrementar el

zenbatekoa igotzeko aukera izango da, gehienez ere egin beharreko jardueraren arabera aplikatu beharreko lan-hitzarmenari dagozkion soldaten eta Gizarte Segurantzako kuoten kostua estaltzeraino. Kasu horretan, eskabidearekin batera, lan-kostuen gainerako zatia erakundearen baliabideekin finantzatu ezin daitekeela justifikatzen duen txostena aurkeztu beharko da.

4.– Deialdi honetan ezarritako diru-laguntza igotzeko aukera izango da, gehienez ere guztira diruz lagundutako kopuruaren % 5, baldin eta diru-laguntzaren onuradunak diren erakunde eta enpresek honako arlo hauetan adituak diren erakundeak badituzte: enplegu-premien azterketan eta prospekzioan, gorabideko sektoreak hautematean, eta udalerrian edo eskualdean garatu beharreko jarduera berriak proposatzean, diru-laguntza eskatzeko laguntzan, okupaziorako funtsezkoak diren konpetentzien inguruko prestazioan eta diru-laguntzaren xede diren jarduerak justifikatzeko memoriak lantzean. Xede horretarako, deskribatutako zereginetarako hautatutako erakundearen izena adieraziko dute erakunde onuradunek, bakoitzak bere eskabidean.

Era berean, diru-laguntzaren kopurua gehienez ere % 5 igo daiteke, deialdi honen babespean kontratatutako pertsonek jarduera gauzatzeko zuzenean izandako gastuetarako. Gastu horien artean, hauek bilduko dira: kontratatutako pertsonen laneko arropa, babes indibidualeko ekipoak eta kontratatutakoek egin beharreko jarduera betetzeko berariaz erositako gainerako baliabide materialak, baita lana egingo den tokira joateko garraio-gastuak ere. Gastu horiek guztiak, nolanahi ere, behar bezala egiaztatu behar dira».

Bi.– 9. artikuluko 2. paragrafoari beste idazketa bat ematen zaizkio. Hain zuzen ere, honela geratuko da paragrafo hori:

«2.– 6. artikuluko 4. paragrafoan aurreikusitako diru-laguntzaren gehikuntza bakoitza epe bakarrean ordainduko da, egindako gastua azaltzen duen memoria eta hori egiaztatzeko fakturak aldez aurretik aurkeztuta».

Bigarrena.– Erabakitako aldaketa 2011ko apirilaren 1etik aurrera jasotako eskaera guztiei aplikatzea.

Hirugarrena.– Erabaki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Laugarrena.– Erabaki honen aurka berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluari, hilabeteko epean, erabakia argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita. Era berean, horren ordez, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, zuzenean,

importe de la subvención hasta un máximo que cubra el coste de salarios y Seguridad Social correspondiente al convenio laboral de aplicación por la actividad a realizar. En tal caso, deberá adjuntarse a la solicitud informe justificativo de la imposibilidad de financiación con recursos propios de la parte restante de los costes laborales.

4.– La subvención establecida en esta convocatoria se podrá incrementar hasta en un 5% de la cantidad total subvencionada cuando las entidades y empresas beneficiarias de la subvención cuenten con entidades expertas en el estudio y prospección de necesidades de empleo, detección de sectores emergentes, propuestas de actividades innovadoras a desarrollar en el municipio o comarca y para el apoyo en la solicitud de subvención, selección de candidatos/as al empleo, formación en competencias claves para la ocupación, así como para la elaboración de memorias de justificación de las actuaciones objeto de subvención. A estos efectos, las entidades beneficiarias indicarán, en su solicitud, la entidad seleccionada para las labores descritas.

Así mismo, adicionalmente se podrá incrementar hasta un 5% de la cantidad subvencionada en concepto de gastos directamente relacionados con la ejecución de la actividad por parte de las personas contratadas al amparo de esta convocatoria. Tendrán esta consideración la ropa de trabajo de las personas contratadas, los equipos de protección individual y demás medios materiales que hayan sido adquiridos específicamente para el desempeño de la actividad a desarrollar por aquéllas, así como los gastos de transporte hasta el lugar donde efectivamente se lleve a cabo el trabajo, todo ello debidamente acreditado».

Dos.– Se da nueva redacción al párrafo 2 del artículo 9, que queda redactado como sigue:

«2.– Cada uno de los incrementos de subvención previstos en el párrafo 4 del artículo 6, se abonarán en un único pago, previa presentación de una memoria explicativa del gasto realizado y las correspondientes facturas que lo acrediten».

Segundo.– Aplicar la modificación acordada a todas las solicitudes presentadas desde el día 1 de abril de 2011.

Tercero.– Ordenar la publicación del presente Acuerdo en el Boletín Oficial del País Vasco.

Cuarto.– Contra el presente Acuerdo podrá interponerse recurso de reposición, ante el Consejo de Administración de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente a su publicación, o bien, directamente recurso contencioso-administrativo, ante el Tribunal Superior

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, erabakia argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko apirilaren 20a.

Administrazio Kontseiluko idazkaria,
JAVIER RAMOS SALAZAR.

OE Administrazio Kontseiluko presidentea,
MARÍA GEMMA ARÁNZAZU ZABALETA ARETA.

de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente a su publicación.

En Vitoria-Gasteiz, a 20 de abril de 2011.

El Secretario del Consejo de Administración,
JAVIER RAMOS SALAZAR.

V.º B.º La Presidenta del Consejo de Administración,
MARÍA GEMMA ARÁNZAZU ZABALETA ARETA.